

2. Euskara batuaren sorrera eta garapena

1. jarduera: Testuinguru sozio-politiko eta kulturala: Espainiako Gerra Zibilaren ondorengo hamarkadak

Irakurgaia: Aguirre Sorondo, J.I. (2018), "Bi kulturak". In Eusko Ikaskuntza, Euskaldunon Mendea. 1918-2018. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

Erantzun beharreko galderak:

1. Euskaingintza eta euskal kulturagintza ze egoeratan geratu ziren frankismoa ezarri ondorengo lehen urteetan? Nola lortu zuen hori frankismoak?

Herritarrak izutzearen eta zigortzearen poderioz frankismoak euskaingintza eta euskal kulturagintzaren etena eman zedin lortu zuen, 40ko hamarkadan argitaratu ziren euskarazko liburu guztiak elizgizonek idatziriko eta gai erlijiosoen ingurukoak izan ziren.

2. Azal ezazu Euskaltzaindiak eta Euskalerriko Adiskideen Elkarteak nola berrekin zioten jarduerari 40. hamarkadan eta ze emaitza eman zituen euskararen eta euskal kulturaren sustapenari dagokionez.

Euskaltzaindiak lanari ekin zion berriro ere, Eusko Ikaskuntzako kide izandako pertsona batzuei eta RM Azkueri esker. Euskaltzaindiak ezingo zituen Frantzian zeuden kideak ez deitu, erbesteratuen orde bestea pertsona batzuk jarri behar zituen eta nazionalismo espainiarretik kide berriak ekarri behar zituen.

3. 1948an erabaki zuten abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna izango zela. Azal ezazu erabaki hori ze erakundek hartu zuen, ze ekitalditan, eta ze baldintzatan egin zen erabakia hartzeko ekitaldia.

Pierre Laffitek, Eusko Ikaskuntzak, Eskualzaleen Biltzarrak eta *Gure Herria* aldizkariko arduradunek hartu zuten parte Baionako Euskal Museoan eta Ustaritzeko Udako Nazioarteko Unibertsitatean egindako Eusko Ikaskuntzako VIII.Kongresuan.

4. 1950. hamarkadan geopolitikako erabaki batzuk hartu ziren Espainiako estatuari dagokioez. Oso kaltegarriak izan ziren euskal komunitatearetzat. Azal ezazu zein diren erabaki geopolitiko horiek.

Isolamendua, ordura arte lagun izandako Alemaniak eta Italiak 2MG galdu ostean frankismoa isolatua zegoen. Aliatuek Espainiako erregimena gaindituko zutela uste bazen ere, Franco URSren kontrakoa zelako. Espainiak EEBBen arma produkzioarekiko tratua zuen.

5. Zein izan zen Ameriketako euskal diasporaren ekarpena euskararen eta euskal kulturaren sustapenari begira 50. hamarkadan hasita?

Euskal etheen sorrerak erbesteratuak ziren euskaldunei haien kulturarekiko gertutasuna emateaz gain euskara-ikastaroak, jai tradizionalak, literatura, antzerkia, irratia, aldizkariak... ere lantzen lagundu zuen, Amerika osoan zehar sakabanatutako kultur oasi hauek irakaskuntza, sormena eta kulturaren sustapena bermatu zieten atzerrian zebiltzan euskaldun batzuei.

6. 1950. hamarkadako hondarrea hasita, euskalgintza eta euskal kulturgintza “belaunaldien arteko haustura” gertatu zen. Zer esan nahi du honek?

Gerra bizi ez zuen belaunaldiak borroka eta euskararen berpizte gogoia zuela esan genezake, kulturaren alorrean adibidez, galdutako berreskuratzen saiatu ziren, alor politikoari eutsi ezin izan zioten arren.

7. Demografiaren ikuspegitik, zein izan zen 1950 ingurutik 1975 ingura arteko bilakaera orokorra Hego Euskal Herrian?

Industrializazio azkarraren ondorioz bi hamarkaden buruan 3 hego euskal herritarretik 1 Euskal Herrikanpo jaioa zen, biztanleria 600.000 pertsona gehiago izatera iritsi baitzen.

8. Euskarazko eskolatzeari ekin zitzaion berriz ere 1950 urtearen inguruan. Zein datu ematen ditu Agirrek?

Elbira Zipitriak Donostiako etxeetan haurrak hezkuntza pribatu bidez nola hezten zituen azaltzen du besteak beste.

9. 1960. hamarkadatik aurrera euskal kulturgintza berpizten ari zela erakusten duten zein datu ageri dira Agirrereren testuan?

Batez ere Unibertsitateen sorreren ingurukoak agertzen dira, hauek izanik kulturaren sustapeneko erdiguneetako batzuk.